



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA. ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA. 2019KO IRAILAREN 5EKOA

Mahatsa apurka-apurka eta egonkor heltzen ari da iraileko lehenengo egun hauetan, eta baldintza ezin hobeak daude horretarako: temperatura epela egunean zehar eta freskoa gauean, eta ez da egon prezipitaziorik, gaur, osteguna, hilak 5 arte, zerua estalita egon baita eta euri arina bota baitu toki batzuetan, baina ez dago egoera hau luzatuko den aurreikuspenik, eta beraz, ez dio eragingo kanpaina honetako heltze prozesuari.

Abuztuaren azkeneko astean, hilak 26an, astelehena, ekaitz handia egon zen Arabako Errioxako tokirik ekialderenean, eta euria (35 litro/m²) eta toki batzuetan kazkabarra bota zituen. Hasieran, beldur ginen gertatu zitekeenaz, baina lurzati solteren bat Lapueblan eta Lantziegon aparte utzita, esan dezakegu sustoa baino ez dela izan. Zauriak ongi orbaindu dira eta aleak berriz ere hazten hasi dira ekaitzaren ondorengo egunetan hazteari utzi zietenetik, ur gehiegi zegoelako eta mahastiek hostoak galdu zituztelako hausteagatik. Gaur gaurkoz, ekaitzaren ondorioen balantzea eginda, uste dugu lurzati kaltetuetako kalitateari ez diola gehiegi eragingo. Mahats mordoak kaltetu izanaren ondorioz uzta murriztuko den kasu gehienetan, prezipitazioei esker konpentsatuko da; hau da, prezipitazio horiek egon ziren egunetan, garapen begetatiboari lagundu zioten eta aleak hazi ziren.

Mahastia heltze prozesu betean dago (N egoera) bai Arabako Errioxan bai Aiaraldean, eta osasun egora bikaina da. Ekoizpena ez da izango 2018ko kanpainaren bestekoa, oso ugaria izan baitzen, baina bai nahikoa kalitatea ezin hobea izateko.

Egoera hori egonik Arabako Errioxan, non kolore aldaketan zeukan atzerapena gainditu baitu, litekeena da mahats bilketa barietate goiztiarrenekin hastera (tempranillo zuria, Chardonnay eta Sauvignon Blanc) Moreda Araba, Oion, Lantziegoko behe alde, Lapuebla eta Guardiako eremurik goiztiarrenetan, 7-10 egun barru, 12-15 egun barru, eremu horietan, Viura barietate zuriaren bilketa, eta 3 aste barru tempranillo beltza barietaterik landatuenarena.

Arabako Txakolinari dagokionez, badirudi mahats bilketa ohi baino lehentxeago egingo dela; hortaz, irail bukaeran, beharbada lehenengo mahats mordoak bilduko dira barietate eta eremurik goiztiarrenetan.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak hasita ditu mahastizain eta upategiei mahats bilketa noiz hasi jakiten laguntzeko urtero egiten dituen heltze jarraipenaren kontrolak. Nahi duenak <https://web.araba.eus/es/viticultura/boletines-maduracion> web gunean argitaratutako datuak eskuratu ahalko ditu, informazio zehatzagoa izateko.

Funtsean, aukera ezin hobea dago kalitatean bikaina eta kantitatean nahikoa izango den uzta izateko, baldin eta ez badago aparteko gorabeheraren bat datozen egunetan.

Guardia 2019ko irailaren 5a.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua

